



Herribizia

Share proiektua 2023an iritsiko da Errenteriara

2022-02-22 – [Kultura](#)



Sorkuntzan eta hezkuntzan zentratzen den Share proiektua Europar Batasunak diruz lagundutako nazioarteko proiektua da, 2021-2024 artean garatuko dena. Erreteriarako Udala proiektuaren bazkideetako bat da Kroazia, Burkina Faso, Eslovenia, Kamerun, Frantzia, Ghana eta Palestinako hainbat eragilerekin batera. 2023an iritsiko da proiektua Erreteriarara Atlantikaldia jaialdia aurreko asteetan. Horri esker, Afrika eta Europako artista ezberdinek proiektu artistikoak garatuko dituzte, ondoren jaialdian aurkezteko.

Proiektuaren helburua Europa eta Afrikako ezagutza eta esperientzia trukea sustatzea da: alde batetik kultur kudeaketa arloko ezagutza eta formazioa eskainiz eta bestetik, jatorri ezberdinetako artisten elkarlanaren bidez garatzen diren proiektu artistikoak sustatuz.

Testuinguru honetan, Bobo-Dioulasson (Burkina Faso) ospatzen den In & Out jaialdiak Share proiektuko bazkideen urteroko batzarra hartu du Erreteriarako Udaleko ordezkari tekniko baten parte-hartzearekin. Gainera, jaialdian parte hartu duten Togo Nigeria, Kongo eta Beninetik etorritako artista, kultur eragile eta ekoizleen presentzia baliatuz Afrika-Europako kultur politiken inguruko nazioarteko konferentzia ere izan da bertan. Saio hauetan Europa-Afrikako eragileen arteko kultur harremanak; Afrikako eskualde mailako kolaborazio eta saretzea; edo toki, eskualde edo nazio mailako arte eta kultura sustatzeko politikak aztertu dituzte. Unescoko Arte Bizietarako bulegoak ere parte hartu du bertan.